


13.Zk.
Maiatza
2011

1€

BETIZU KLUBA 10 URTE

ekainak 12, Bilbon,
Casilda Iturrizar Parkean
11:00-20:00

# BETIZU JAIA 2011

BETIZU KLUBA 10 URTE




eitb
"la Caixa"
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Nesquik
naturgas energia edp taldea



Emaiguzu zure helbide elektronikoa eta irabazi ...

IPod shuffle bat, mp3 bat, 15 iPod nano eta Zipy pack junior bat!

## Kaixo, lagun!! Betizu Klubak 10 urte bete ditu eta aldaketa bat merezi du, goitik beherakoa!

Betizu Kluba beti arduratu izan da ingurumena zaintzeaz, horregatik ez dugu paperik berriz erabiliko zurekin harremanetan jartzeko eta bide batez teknologia berrien munduan sakonago murgilduko gara. Guztion artean interneteko komunitate bat sortuko dugu.

Hemendik aurrera zurekin izango **ditugun harreman guztiak posta elektronikoaren bidez** edo Interneten **bidez** izango dira. Zuri interesatzen zaizun informazio guztia, zorion gutuna, eskaintza bereziak, zozketak eta lehiaketak, guzti guztia e-posta helbidez jaso al izango duzu.

**Hori dela eta**, **zurekin harremanetan jarraitu ahal izateko**, **beharrezkoa dugu zure e-posta helbidea jakitea.** Eta gainera, bide batez, zure datuak aldatzeko aukera emango dizugu, nahi izanez gero.

BETIZU KLUBA 10 URTE



# Bidali zure helbide elektronikoa eta irabazi opari bikainak!

## www.eitb.com/betizu/

**gunean utz dezakezu zure helbide elektronikoa**

Jasotako helbide guztien artean **Zipy pack junior bat** (bideokamera, mp4 eta 2 gigako txartela), **Ipod Shuffle bat, mp3 bat eta 15 ipod nano** zozkatuko ditugu. Eta **ekainaren 1a baino lehen** bidaltzen badiguzu zure helbide elektronikoa, aukera bikoitza izango duzu.



Zozketa Betizu Jaian egingo dugu, **ekainaren 12an.** Han ere izango duzu zure helbide elektronikoa emateko aukera.

Gehiago ere badugu!! Betizu Jaian esklusiba mundiala emango dizugu!! Ezin duzu galdu!!

**Informazio gehiago www.eitb.com/betizu/**

BETIZU KLUBA 10 URTE




**Emaiguzu zure helbide elektronikoa eta irabazi ...**

IPod shuffle bat, mp3 bat, 15 iPod nano eta Zipy pack junior bat!

Aldaketak datoz Betizu Klubean. Hasteko, papera alde batera utziko dugu, eta aurrerantzean posta elektronikoa eta Internet baino ez ditugu erabiliko zurekin harremanetan egoteko. Horretarako, zure helbide elektronikoa behar dugu!!!

Parte hartzen duzuen guztion artean, opari mordoa zozkatuko ditugu.

BETIZU KLUBA 10 URTE

# BETIZU JAIAN 10. URTEURRENA OSPATZEN!



Musika eta ikuskizunak agertokian.



Kantadantzak emanaldia, Betizu Klubaren 10. urteurrena ospatzeko eta agur berezia egiteko!



Betizuak egun osoan zehar: argazki saioak, musika eta dantza....



Rokodromoa, tirolina, familiartean jolasteko joko birziklatuak, txu-txu trena, makilaje tailerra, tren elektriko txikia eta trikimakoak, perkusio tailerra, Ecoxoc dibertigarria, ludotrena eta puzgarriak, lehiaketak, opariak...

## Hori guztia galduko duzu?

**Zatoz Betizu Klubari agur bero bat egitera, eta lagun berriak ezagutzera!**

eitb "la Caixa" EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO Nesquik naturgas energia edp taldea

"la Caixa"

2004



2004 akordioa sinatu zen

# ESKERRIK ASKO BETIZU GUZTION PARTEZ!




gazteok diskoaren babeslea




betizu jaian lehen aldiz

2005

## BETIZU KLUBA 10 URTE

**Betizu Klubak eskerrak eman nahi dizkio bereziki "la Caixa"ri urte hauetako babesagatik. Orri hauetan urteokaz eskainitako guztien laburpena:**




bost diskoaren bilduma

2006




Euskal Herria hobeto ezagutu dugu



betizu jaian egin kantuko izarrekin

2007




egin kantu cd eta karaokea

www.eitb.com/betizu/

# Betizu Klubarekin

2008



betizu pelikula



betizu jaian
dantzako akademia

2009




betizu gida digitalean




betizu jaiko agertoki nagusian

2010



betizu jaian
opari bikainekin



marrazki lehiaketako
sari banaketan

2011




betizu gida digitalean

www.eitb.com/betizu/

BETIZU KLUBA 10 URTE

Betizu: parkean zehar dabil





Txu-txu trena: errepidetik dabil



Puzgarria: kokatu parkean nahi duzun tokia

Ahateak: urtegian daude





Pailazoak: pergolako agertokian daude

Azpiko mapan itsatsi aurreko orrialdeko irudiak, behin margotuta bakoitza dagokion tokian jarri.

**BETIZU JAIAN 10. URTEURRENA OSPATZEN!**



# Kantadantzak

## Disko bat eta DVD bat, Betizu Klubari festazko agurra egiteko

**Betizu Klubaren 10. urteurrena ospatzeko eta Betizu Klubari agur polit eta dotore bat egiteko Disko bat eta DVD bat kaleratu ditugu: KANTADANTZAK!**

BETIZU KLUBA 10 URTE



**Uda honetan dantza eta dantza ibiltzeko ezinbestekoa duzu KANTADANTZAK!**

Bertan, guztiok ezagutzen ditugun abestiak entzungai izateaz gainera, dantza egiteko aukera paregabea ere izango dugu!










**Ohiko saltokietan aurkituko dituzu, eta Betizu Jaian ere bai.**

# ZOZKETA




"la Caixa"

**10 DISKO/DVD-ren zozketan parte hartu nahi baduzu, eman zure erantzuna betinews@eitb.com helbidean**

**ekainaren 30a baino lehen.**

**GALDERA: Zein da Betizu Klubari agur egiten dion disko/DVDaren izena?**

# Kantadantzak

**proiektu honetan protagonista izan direnekin egon gara. Ezagutu nahi?**

BETIZU 10 URTE KLUBA




**Goiko lerroa ezkerretik eskumara:** Aitor Legarte, Elene Carazo, Amets Aguirrebengoa, Maialen de Abajo, Oihane Uriarte, Alaitz Uriarte, Ane Rekalde

**Beheko lerroa, ezkerretik eskumara:** Ainhize Legarreta, Paule Ziarreta, June Antoñana, Ander Elorduy, Garazi Larizgoitia, Leire Urrutikoetxea, Naia Legarreta

### 1. GOGOR ENTSEATZEN ARI ZARETE, GAINERA LARUNBATEAN. ZER PRESTATZEN ARI ZARETE?

**NAIA:** Bai, gogor ari gara. Betizuren 10. urteurreneko bideokliperako dantzak prestatzen ari gara.
**ALAITZ:** Bai, oso gogor. Larunbatetan dantzak prestatzen ditugu. Horrek poztasun handia ematen dit.
**JUNE:** Bai, gogor ari gara. Antzerkiak, abestiak eta dantzak prestatzen ari gara.
**MAIALEN:** Betizu Klubaren 10. urteurrena denez, Betizu Jaian ekitaldi berezi bat egongo da, eta gu koreografiak prestatzen ari gara.

### 2. NOLA ANIMATU ZINETEN PROIEKTU HONETAN PARTE HARTZERA?

**AINHIZE:** Ikerne andereñoak esan zigun, eta guk barreka eta ahoa zabal-zabalik baietz erantzun genuen.
**PAULE:** Betizu asko gustatu zaigu beti. Ni Betizu Klubekoa naiz!
**OIHANE:** Dibertigarria izango zela pentsatu nuen.
**LEIRE:** Dantza gogoko dudalako eta gainera talde ederra osatzen dugulako.

**3. ZEIN DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUEN ABESTIA?**

**AMETS:** Niretzat hoberena "Gora-Gora" da, nahiko alaia delako eta denok batera kantatzen dugulako.
**OIHANE:** "Gora-Gora" abestia!
**MAIALEN:** Egia esanda, prestatzen ari garen koreografien abestiak denak gustatzen zaizkit, oso alaiak dira-eta.
**ANDER:** "Agur Euskal Herria" da gehien gustatzen zaidan abestia.








**4. BETIZU JAIAN IKUSKIZUNA ESKAINIKO DUZUE. URDURI?**

**PAULE:** Bai, urduri nago, baina pozik
**AINHIZE:** Bai, urduri eta larri.
**GARAZI:** Bai, oso urduri nago.
**AITOR:** Ni oso pozik nago eta "izar" bat bezala sentitzen naiz. Aurkezpena egiteko gogo handiz nago!

**ZER EGINGO DUZUE?**

**PAULE:** Dantzatu eta abestu.
**AINHIZE:** Giroa alaitzeko, antzerkiak eta dantzak egingo ditugu. Oso ondo pasatuko dugu!
**GARAZI:** Dantzak egingo ditugu.
**AITOR:** Betizu kantuei eta beste batzuei lotutako dantzak.

**5. ANIMATU GURE IRAKURLE GUZTIAK BETIZU JAIRA ETORTZERA.**

**AMETS:** Anima zaitez, eta etorri Betizu Jaira! Jokoak, puzgarriak eta abar egongo dira, eta gainera gure dantzak ikusi eta gozatuko dituzue!
**NAIA:** Animatu eta etorri!! Ederto pasatuko duzue dantzatzen eta kantatzen. Gainera gure esfortzuaren emaitza ikusiko duzue. Lan itzela egin dugu zuek jaian ederto pasatzeko.
**ALAITZ:** Gu Mungiako talde berri bat gara. Gogor-gogor egin dugu lan zuek ondo pasatzeko. Anima zaitezte!! Ondo pasatuko dugu!

**6. HEMENDIK HAMAR URTERA, NON IKUSTEN DUZUE ZEUEN BURUA?**

**JUNE:** Biolinista profesionala izan nahiko nuke
**ANDER:** Abeslari on bat izango naiz. Horretan nago!
**GARAZI:** Nik Betizun ikusten dut neure burua.
**LEIRE:** Abesten eta nire ametsa zientzialaria izatea da.

BETIZU KLUBA 10 URTE

# Lotu zenbakiak eta margotu:

## "HORRELA HOBETO. ESKERRIK ASKO!"





EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HERRIZAINGO SAILA
Herrizaingo Sailburuordetza
*Trafiko Zuzendaritza*
DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Viceconsejería de Interior
*Dirección de Tráfico*

# BERRIKUNTZAK ETB3-N eta INTERNETEN

**www.eitb.com/betizu/**



Aurki marrazki bizidunak Internet bidez, nahi dugun momentuan, ikusteko aukera izango dugu. Zuk aukeratuko duzu noiz eta zer ikusi nahi duzun. "ETB nahieran" izeneko proiektua abian da!

Beste berrikuntza bat. Hemendik aurrera zurekin izango ditugun harreman guztiak posta elektronikoaren edo interneten bidez izango dira. Zuri interesatzen zaizun informazioa, zorion-gutuna, eskaintza bereziak, zozketak eta lehiaketak... guzti-guztia e-mailez jasoko duzu. Jarraitu beharreko pausuak www.eitb.com/betizu/ atarian dituzu.

ETB-3ri dagokionez, telebistan arrakasta handia izan zuten marrazki batzuk bueltan dira: Shin Chan eta Dragoi Bola.
Goizeko 07:00etatik gaueko 22:00ak arte zure lagun guztiak aurkitu ahal izango dituzu: Dragoi Bola, Shin Chan, Super Super Sumoa, Team Galaxy, Berebiziko Espioiak, One Piece, Galactick Football...




## ASTURIASen, Acebos-Azabache Hotelak

# Egunaz gozatzeko, gauaz gozatzeko

## hotelak aukeran, landa-inguruan edo hirigunean



**ABENTURA PAKETEA:**

- 3 egun-2 gau (baita asteburuetan ere)
- 2 lagun logela bikoitzean, eta bufet libreko gosaria
- sagardo botila bat ongietorri oparitzat

**eta abenturazko ekintza bat aukeratzeko:**

- Sella jaistea edo quad moto bikoitzean ibilaldia

**50 €**



LoS ACEBoS CANGAS Hotela**



AZABACHE SUSIERRA Hotela**



LoS ACEBoS ARRIONDAS Hotela***



AZABACHE CARDES Hotela**

Oinarrizko prezioak pertsonako. Iragarritako epealdiko datak, antolatzailearen baldintza orokorrak eta eskaintzaren gainerako baldintzak kontsultatu. Kudeaketa-gastuak 6 €. Plaza kopuru mugatua. ENK 618.

www.viajeseroski.es

EROSKI bidaiak zurekin

## BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOAK

**begiratoki paregabea eskaintzen du itsasoaren abentura zirraragarriaz gozatzeko, Itsasadarren eta Bilboko portuan barrena murgilduz. Bidaia honetan pertsonai berezi batzuk izango dituzue lagun, Playmobil panpinatxoak.**

**Museoko erakusketa iraunkorrean zehar Playmobil panpinatxoekin osatutako dioramak ikusgai dituzue:**



Itsas Museoa



Bilboko Kontsulatuaren falua



Euskaldunako ontziola




Aurki "Marrazoen alde, itxaropen-itsaso bat", marrazoen mundu liluragarria ezagutzeko aukera izango duzue, ekaina eta uztaila bitartean.
Auntz atoiontzia gainera barrutik bisita dezakezue
Igandero gela didaktikoa zabalik aurkituko duzue, bisita ostean "Eraiki ezazu zure itsasontzia" tailerrean parte hartzeko. Gela didaktikoaren ordutegia: 11:30etatik – 14:00etara.

bilboko itsasadarra itsas museoa
museo marítimo ría de bilbao





Itsas salbamendua

## PARTE HARTU

**"Itsasoaren lagunak" liburu bat eskuratu nahi baduzu, sartu gure webgunean eta parte hartu zozketan.**
**Guztira 10 liburu zozkatuko ditugu.**
**Azken eguna, ekainaren 30a.**




BETIZU
KLUBA
Eta zu, nola dibertitzen zara?
BetiZu
KLUBA
MUNDUA
EUSKERA
"la Caixa"
BETIZU
Orain, **Betizu Izar Libretarekin**, **aurreztu** eta **ondo pasa**. Oraindik ez baduzu libretarik, etorri **”la Caixa”**ren edozein bulegotara zure NANarekin, eta berehala irekiko dizugu bat.
**Eskuratu zure Betizu Izar Libreta, eta ondo pasa aurreztuz!**
**Oraindik ez zara Betizu Klubekoa?** Etorri ”la Caixa”ren edozein bulegotara, eta emango dizugu informazioa.
”la Caixa”